

ONDARROA. Garbitzaileen lan hitzarmena ezarri jakela ohartu dabe



NEKANE AKARREGI

Garbitasun enpresa batek nagusien arretearen ardura eukitea salatzekoa dala dinoe beharginek.

Artibai egoitzako langileek lan baldintzak salatu ditue

Enplegu kolokatasuna eta esplotazinoa jasan behar dabela dinoe

Lore Bengoetxea |

Ondarroako Artibai zaharren egoitzako beharginak kalera atera dira joan dan asteburuan euren behar baldintzak salatze-ko. Ohar baten dinoenez, esplotazinoa nagusitzen da beharrean, eta lanpostuak kilokolo ditue. ELA eta LAB sindikatuek bat egin dabe beharginekin.

«Denpora luzea daroagu Udalak erresidentziagaz eroan dauen kudeaketearen ganean desadostasuna adierazoten», azaldu dabe Artibai egoitzako beharginek. «Adineko jentearen arrete eta zainketearen ardura garbitasun enpresa bati emotea hasieratik salatu genduan», esan dabe. Erabagia ez zala egokia izan dinoe. «Enpresa horrek, garbitzeko enpresa dan heinean, ezin ditu emon adinekonetzako egoitza batek behar dituan zerbitzu eta atentzinoak», ganeratu dabe. Horren ondorioz, Artibai egoitzako zerbitzuaren kalidadea «eskasa» dala dinoe.

Esplotazinoa salatu dabe

Horrezaz ganera, beharginak esplotauta dagozala salatu dabe, eta prekaridadean egiten dabela beharra. «Soldata eskasak ordaintzen ditue, kontratu partzialak egiten ditue, behargin eskasia dago, eta aldi baterakotasunean egiten da beharra. Beste alde batetik, garbitzaileentzako lan hitzarmena

ezarri da, mailarik baxuenean», azaldu dabe oharrean.

Artibai zaharren egoitzako beharginek esan dabenez, aparteko orduak ordaintzen deustieez, «diru baltzean. Udalak kudeatutako egoitza baten hori gertatzea larria da; oraindino eta larriagoa lanorduetatik kanpoko orduak horreek egiten dituen beharginek kontratu partzialak dituela kontuan hartzen badogu». Euren esanetan, diskriminazinoa be badago. «Ez da kasualidadea egoitzako langilego osoa andrazkoak izatea. Ganera, Udaletxeak zuzenean kontratautako beharginen aldean be sekulako ezbardintasunak

jasaten doguz», kritikau dabe. «Azken horreek, gu ez modura, administrazino publikotako lan hitzarmenera lotuta dagoz, nahiz eta egiten doguzan beharrak bardinak izan». Dinoenez, soldatetan dagoan aldea 50.000 pezetakoa da.

Euren egoera sarritan salatu dabe Udalean, «ordezkari sindikalen bitartez, eta kudeaketa hobetzeko proposamenak aurkeztu arren, ez da jarrera aldaketarik egon. Kolokatasuna, esplotazino eta gestino eskas horren arduradun zuzena gaur egungo alkatea da, Loren Arkotxa, bere aginte taldeak babestuta», jasoten da beharginen oharrean.

ARTIBAI EGOITZARAKO PLANA

2002ra begirako aldaketak

Loren Arkotxa alkateak azaldu dauenez, datorren urtean Artibai egoitzarako plan zehatza martxan egongo da. «Alkatetzeari hartu genduan bagenkian Artibai egoitzako egoera hobetu beharra egoana, bai beharginena, bai egoilarrena. Horretarako, lehenengo urratsa sindikatuekin batzea izan zan. Momentu honetan, beharginen ordezkariekin berbetan gabilzala, harritu samar laga gaitu kaleratu daben agiriak». Orrian diru baltzaren ganean egiten dabe berba beharginek. «Gestinoa daroan enpreseagaz batu ginan, ordainketa guztiak gizarte segurantzian zein nominetan agertu egin behar zirala argitzeko. Enpresak berbea emon euskun, inoiz holakorik gerta izan bada be, aurrerantzean ez dala barriro pasauko». Urte barriari begira, «gauza guztiak bere lekuan egotea nahi dogu. Planaren barruan bereiztu egingo da garbiketa beharra eta egoilarren zaintzea zeintzuei tokaten jaken. Bereizketa hori danon onerako izango da, egoilar, behargin eta Udalaren onerako».

LEKEITIO. Traba arkitektonikoak kendu ditue

Kontsumitzaileen bulegoa Pascual Abaroa etorbidera eroango dabe laster

L.B. |

Lekeitioko Udalak jakitera emon dauenez, laster kokapen barria eukiko dau kontsumitzaileen informazinarako udal bulegoak. Pascual Abaroa kaleko 11. zenbakira pasauko dabe bulegoa, «lehen Laka drogeria egoan lokatera», argitu dabe.

Kontsumo bulegoek gogoratu dabenez, «edonork euki ahal ditu arazoak produktu edo zerbitzu bat kontsumidu edo erabilten dauenean. Kontsumitzaileen bu-

legoaren zeregina da arazo horreei aurre egiteko informazioa emotea eta defenditzea».

Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eskubideak, beste batzuen artean, honeek dirala dinoe: osasun eta segurtasun arloan babesa eukitea; interes ekonomiko eta sozialak babestea; informazio edo propaganda zuzena hartzea; eta kontsumo arloan heziketa eta prestaketa egokia eukitea. Udalak irisgarritasun legera egokitu dau bulegoa.

BERRIATUA. Kirolak izango dira protagonista

Ardi txakurren lehiaketea antolatu dabe San Pedro jaian barruan

L.B. |

Berriatuarrek esku artean daukie aurtengo San Pedro jaietako egitaraua. Beste gauza askoren artean, ardi txakurren lehiaketea izango garagarriaren 1ean.

Bagilaren 28an, eguna, *Tirri-Tarra show* izeneko ikuskizuna antolatu dabe Berriatuan, gaueko 20:30etik aurrera. Hurrengo egunean, San Pedro eguna dala eta, meza nagusia egongo da eguerdian, eta herri kirolak horren ostean. Arratsaldeko 16:00etan hasita, umeen jolasak izango dira plaza inguruan, eta egunagaz amaitze-

ko, zesta partidu profesionalak prestatu ditue 22:00etan.

Bagilaren 30a San Pedro Txiki da, eta horren atxakiaz ekintzak egongo dira: futbol maratoia 11:00etatik aurrera eta mus eta briska txapleketak arratsaldeko 17:00etan hasita. Gaueko 22:00etan Berriatu Bertso Saria egongo da jokoan.

Garagarriaren lehenean II. Lea Artibai ardi txakurren lehiaketea ikusi ahal izango da 12:45etik aurrera. Arratsaldeko 17:00etan profesionalen esku pelota partiduak jokatuko dira Mendibarren frontoian. Neurketa horreekin amaituko ditue jaiak.

AGENDA

LEA IBARRA

Amoroto eta Mendexako sendagilearen ordutegia: Medikua goizeko 08:30etik aurrera egongo da; Amoroton, astelehen, eguazten eta eguenetan, eta Mendexan, martitzen eta barikuetan. Osakidetzak aldeztu aurretik Lekeitioko anbulategian txandea eskatzea gomendatzen dau. Hauxe da telefonoa: 94 684 2891.

LEA-ARTIBAI

Turismo bulegoen ordutegia: Gaur bakarrik Lekeitioko bulegoa egongo da zabalik, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Atsedena hartuko dabe Markina-Xemeingo eta Ondarroako bulegoek. Bihar barriro zabalduko ditue ateak.

ONDARROA

Musika Eskolearen ekitaldiak:

Ikasturtea amaieran hainbat ekitaldi antolatu ditue. Beste gauza batzuen artean, aste honetan zehar musika emonaldia egongo dira arratsaldeetan.

Homosexualidadearen ganeko jardunaldiak:

Gay eta lesbianen nazioarteko eguna dartoirela eta, Udal Emakume batzordeak erakusketea eta bisita gidauak antolatu ditu, hilaren 22ra arte, EHGAren bitartez. Beste alde batetik, gaur berbaldi-tailerra egongo da Guzur Etxean *Dibertsidadea eta aurreritziak* gaiaren ganean. Ekitaldia 19:30ean izango da.

San Juan jaiak: San Juan egunaren bezperan sua bizitu nahi dauenak Udala jakinaren ganean ipini behar dau, leku eta erarik egokiena zehazteko. Deitu 94 683 3669 telefonora.